

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko maiatzaren 31. IX. urtea. 2.603. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Tolosaldeko ehunka herritarrek Tolosan arratsaldean eginiko manifestazioan hartu zuten parte, «eskubide sozial eta laboral duinak» aldarrikatuz. I. TERRADILLOS

## Gutun sozialaren aldeko oihua

Tolosaldean eta Leitzaldean jarraipen zabala izan du greba orokorrak; Tolosan eta Leitzan izan diren manifestazioetan ehunka herritarrek parte hartu dute

LAB eta ELA sindikatutik Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren eta borrokan jarraitzearen beharra aldarrikatu dute, «egoera aldatzea posible delako» **o 2-5**



# TOLOSALDEA

LANBIDE HEZIKETA  
INSTITUTUA

Eleanitza



ziklo guztiak  
euskaraz

AURREMATRIKULAK Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra

### ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak



Ehunka herritarrek hartu zuten parte atzo arratsaldean Tolosan egin zuten manifestazioan. i.t.

# Eskubide sozial eta duinen alde ehunka herritar atera dira kalera

Gutun Sozialaren aldeko apustu sendoa aldarrikatu dute ELA eta LAB sindikatuek, egoerari buelta emateko

## Iñigo Terradillos

Eskubide sozial eta laboral duinak aldarrikatuz euskal gehien-go sindikalak eta hainbat eragilek deituriko greba orokorrak erantzun zabala izan du Tolosaldean eta Leitzaldean. Komertzio nahiz lantegi gehienak itxia ageri ziren atzokoan, eta ehunka izan ziren bai Tolosan, bai eta Leitzan ere, kalera atera ziren herritarrak. Eguerdian Donostian eta Iruñean egin zituzten manifestazioan elkartu ziren Tolosaldeko

eta Leitzaldeko herritarrek. Arratsaldean, berriz, Tolosako eta Leitzaldea kaleak zeharkatu zituzten *Eskubide sozial eta laboral duinak*. *Euskal Herriak eredu propioa* lelopean. Hiriburuetako nahiz eskualdeetako hirietako manifestazioek izan zuten harre-raren inguruan balantze «oso positiboa» egin dute sindikatuek.

LAB sindikatuko Mari Mujikak adierazi duenez, parte hartzea «oso handia» izan da: «Gure ustez, egunero kalean egoteko moduko arrazoiak daude, Euskal Herrian egoera tamalgarri batera baihoaz». Hala, Tolosaldeko datuak nabarmendu ditu Mujikak: 3.400 langabetu baino gehiago ditugu, askok inolako prestaziorik ez dute, eta gainera, langabetuen %40 inguru gazteak dira». Horri pentsioen erreforma ere gehitu

dio LABek, argi baitute laster iritsiko dela, eta horrek erretirodunen baldintzak «are gehiago» okertuko dituela. Horren aurrean, LABetik argi dute «Espainiatik datozen neurriek egoera okertu egingo dutela, ez baitute inondik inora lanposturik sortu ezta sortuko ere».

Bestalde, Adegri enpresari- elkarrekin eginiko adierazpenen aurrean, agian «beste era bateko mobilizazioak» landu behar direla, baina errealtatea ezin du ukatu dio Mari Mujikak: «Grebek ez dutela ezertarako balio, eta enpresentzat kaltegarri direla diote, baina, egoera larria dela ezin du ukatu inork, eta hartzen ari diren neurriekin larritasuna areagotu egiten da; langileen izerdipean euren etekinak nola ahala mantentzea da enpresari askoren helburu bakarra, eta horretarako Madrilgo erreformek balio diete eta berriak etortzen badira berriak oso gustura hartuko dituzte, baina bitartean Tolosaldeko eta Euskal Herriko egoera ez da aldatuko».

Enpresariarentzat bezala, langi-

leentzat ere bidali du mezua LAB sindikatuko kideak: «Langileei esango nieke badagoela zer esan eta zer hausnartu, izan ere, kezkatuta gaude hainbat enpresatan langile batzuk gainerako langileekiko nahiz gizartearekiko duten jarrera ez solidarioarekin». Halaber, langileria animatu dute borrokan jarraitzera: «duela bost edo sei bat urtera arte lortu izan dugun egoera borroka bidez lortu dugu, eta aurrera begira ere borrokatzen jarraitu beharko dugu». Langileei ezezik gizarte osoari luzatu diote mezua, «gizarte osoaren arazoa baita». Alderdi politikoei ere badute Europatik datozen aginduei men egiteari eta enpresari nahi dutena emateari uzteko garaia. Apustu kolektibo handia egin beharko dugu egoerari buelta emateko», adierazi du Mari Mujikak.

## Herriarentzat gobernatzea

ELA sindikatutik ere «oso gustura» geratu dira mobilizazioek izan duten erantzunarekin. «Mila pertsona bildu gara, eta gure aldarrikapenak ohikatu ditugu»,

adierazi du Egoitz Iturbek Donostiako manifestazioaz. Hala, manifestazio hori «Tolosaldeak izan duen grebaren islada» izan dela dio, Tolosaldean «ia erabatekoa» izan baita greba orokorraren erantzuna.

Iturberen ustez, ezinbestekoa da egungo politikak aldatzea:



«Lehen genuen egoera borroka bidez lortu genuen, eta borrokatzen jarraitu beharra dugu»

MARI MUJIKAK  
LAB

«Lanketa, gizarteratzea eta mobilizazioa dira egoerari itzulita emateko alternatiba»

EGOITZ ITURBE  
ELA

«Politikak aldatzen ez badira murrizketak etorriko direla esan genuen aurreko greban, aldatu gabe jarraitu dute, eta egoerak okerrera egin du. Politikariek bankuentzako gobernatu nahi dute, eta ez gizartearentzako, eta horrek ondorio oso larriak ditu: langabezia tasa handia, erretirodunen prestazioen murrizketak, soldaten murrizketak... Politikariek herriarentzat gobernatzea nahi dugu».

Horregatik, sindikatu abertzaleek eratzte bidean duten Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna nabarmendu du. «Gutun sozial horretan gure alternatibak mahai gainean jarriko ditugu, zer eta nola eraiki nahi dugun, alegia, gure ustez, egoera aldatzea posible baita». Aldaketa, halaber, ez dela egun batetik bestera emango azaldu du, «prozesu bat baita, eta prozesu honetan, lan-keta, gizarteratzea eta mobilizazioa baita alternatiba».

## Leitzan, ere erantzun handia

Leitzan ere, «ia erabateko jarraitpena izan du grebak. Hainbat mobilizazio izan ziren atzo, egun osoan, eta jendetsuena arratsaldeko manifestazioa, 200 lagun inguru elkartu zirelarik. Horrez gain, kottxe karabana ete herri bazkaria ere egin zuten, eta Iruñeko manifestazioan parte hartu zuten leitzar ugari».

## Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Goizetan, etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoarekin. 943 696882/606 5219922

### SALGAI

**Quad.** Suzuki LTZ 400 quad-a. 3.500 kilometro. Guztiz ekipatua, berria bezala. 600 75 2537.

[www.inmosalbide.com](http://www.inmosalbide.com)



**SALBIDE**  
Higienez zerbitzuak

**Aia.** Baserria berritu berria. 125m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000m2. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

**Bergara.** Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

**Donostia.** Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92m2 ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

**Zarautz.** SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Grebak jarraipen oso zabala izan du

Lantegi eta komertzio ia guztiek bat egin dute grebarekin; zenbait alorretan gutxieneko zerbitzuak izan dira

**M. Iraola / I. Garcia Landa**

Greba orokorrarekin ia gizarte osoak egin du bat. Sindikatuek jarraipena «ia erabatekoa» izan dela azaldu dute, bai lantegietan eta baita komertzioetan ere. Industrieguneetan ia ez da jarduerarik izan, eta Tolosa, Villabona eta Ibarra kaleetan, esaterako, komertzioak itxita egon dira erabat, salbuespenen bat tarteko. Garraio publikoan gutxieneko zerbitzuak izan dira, eta eraikuntza arloan ere oro har geldituta egon da.

LAB sindikatutik Pasaban eta Voith enpresetako langileek grebarekin bat ez egitea salatu dute: «Baldintza onenetakoak dituzten langileak dira, eta gehiengoak grebaren alde ez egitea gizarteari bizkarra ematea da».

Eskualdeko udaletan ere lanuzteak izan dira, eta Tolosako Udalean, esaterako, zenbait zerbitzu ez dira eskaini, udal bulegoak eta Usabal kiroldegia, besteak beste. Beste zenbait alorretan gutxieneko zerbitzuak eskaini dira, Iurreamendi egoitzan eta Uzturre zentroan, besteak beste.

Anoetan herriko festetan daude, eta jai batzordeak grebarekin bat egin du. Horrela, atzokoan herritarrek antolatuta eta aurrera eramandako ekitaldiak egin zituzten bakarrik.

Tolosako Samaniego ikastetxe-ko langileen (irakasleak, hezitzaileak eta sukaldariak) gehiengo batek «beste mobilizazio ekintza bat» antolatuta du greba orokorreko egunean. «Jasaten ari garen murrizketen aurrean grebarako arrazoiekin bat eginda ere», lanera joan dira, eta greba eginek administrazioak soldatatik kentzen duen diru ordaina eskolak dituen beharrak asetzeko erabiliko dutela azaldu dute. *Murrizketarik ez* lelopean elkarretaratzea egin zuten, atzo, langileek.



Apatta industrigunea, atzo eguerdian. I. TERRADILLOS



Ibarrako komertzioak itxita egon ziren atzo. I. TERRADILLOS



Supermerkatuek oro har ateak itxi zituzten. M. IRAOLA



Tolosako udal bulegoek ez zuten atzo zerbitzurik eman. I.G.L.



Grebarekin bat egin arren, festa ere egin dute Anoetan. I. URKIZU



Samaniego ikastetxe-ko langileek atzo egindako elkarretaratzea. HITZA

**Ibai Iriarte**  
Tolosako alkatearekin  
**ZUZENKO**  
**ELKARRIZKETA**

Ikusi [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) webgunean

**Bidali zure galderak:**  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)  
edo  
@hitzatolosaldea

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO  
**hitza** info

Ekainak 4, asteartea  
13:00etan



# Grebalari taldeak ez du lan handirik izan

Zenbait enpresa eta komertzioetan izan dira pikete informatzaileak, bertako langileei greba egiteko eskatuz

**M. Iraola / I. Garcia Landa**

Oraindik argitu gabe zegoela elkartu ziren Tolosaldeko grebalari talde informatzaileko kideak Tolosako Usabal kiroldegiaren apar-kalekuan. Ehun pertsona inguru bildu ziren, eta Ertzaintzaren furgoneta bat ere ordurako bertan zegoen. Goizean zehar egindako ibilbide guztian, lantegietan zein Tolosako herrigunean, ondoan izan zituzten ertzainak. Piketeek ez zuten lan handirik izan, orokorrean itxita baitzeuden lantegiak eta komertzioak.

Lehenengo geldialdia Zizurkil-

go Oria paper fabrikari egin zuten. Piketeek paper fabrikako langileei grebarekin bat egiteko eskatu zieten, eta paperaren sektoreko lan hitzarmena greba deialdi baten ondorioz lortu dela aurpegiratu zien. Hurrengo geldialdiak Villabonako Laga Grafikak eta Anoetako Orbinok lantegietan izan ziren, eta hauetan ere greba egiteko eskatu zieten. Langile guztiak ez zeudela eta, beraz, beste batzarririk ez zutela egingo izan da enpresa horietan zeuden langileen erantzuna. Orbinok kasuan, langileen ordez Ertzaintzak eman zieten horren berri grebalari taldekoiei.

Piketeentzat beste hitzordu garrrantzitsua herriguneak nola esnatzen ziren ikustea izan zen. Horretarako, Tolosako Trianguloa plazan elkartu ziren. Banketxe guztiak itxita zeuden, Santander ezik. Bertan izan zen grebalari

taldea, eta langileek batzarra egin ondoren, ixtea erabaki zuten. Komertzio txikiak itxita zeuden eta supermerkatuetara joan ziren piketeak. Hala, Eroski supermerkatua irekita topatu zuten eta grebarekin bat egiteko eskatu zieten langileei, eta hauek horrela egitea erabaki zuten. Bestalde, BM Supermerkatuan izan ziren ere grebalari taldekoak, eta barruan langileak bazeuden ere, sarrera itxita zegoen.

Tentsio uneak ere izan ziren Ertzaintzarekin: grebalari taldeko kide bati kutzazainetan jartzeko prestatutako pegatinak eskatu zizkieten ertzainek. Grebalariek bakean uzteko eskatu zieten, eta eztabaida izan ondoren, aurrera jarraitu zuten. Lanbide enplegu zerbitzuko langileen eta grebalari taldekoen artean ere eztabaidak izan ziren greba egitearen inguruan.



Grebalari taldekoak eta ertzainak, eztabaidan. M. IRAOLA



Zizurkilgo Oria paper fabrikari izan ziren lehendabizi pikete informatzaileak. M. IRAOLA



Anoetako Orbinok enpresan geldialdia egin zuten grebalariek. M. IRAOLA



Tolosako BM Supermerkatuko langileei grebarekin bat egiteko eskatu zieten piketeek. M. IRAOLA



Grebalari taldekoak, Lanbideko bulegoen barruan. M. IRAOLA



TOLOSAKO  
INMAKULADA  
IKASTETXEA



## HEZIKETA ZIKLOAK

### Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

### Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
  - Farmazia teknikaria
- FORMAZIO BERRITZAILEA  
ETA KALITATEZKOA**

**AURREMATRIKULAK**  
Maiatzaren 27tik  
ekainaren 7ra

Tel.: 943 67 36 29

[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)



JULEN TELLERIA

## Gaizka Etxebeste, Eider Mintegi eta Beñat Leunda ▶ Ikasle Abertzaleak

Atzoko greba orokorrarekin bat egiteaz gain, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna osatzeko lanean ere buru-belarri ari da Ikasle Abertzalea. Gobernuen erabakien aurka agertzearekin batera, Euskal Herriarentzat eredu propioa aldarrikatzen dute.

# «Atzoko grebak jarraipen indartsua izango du gutun sozialari esker»

**Julen Telleria** Tolosa

Ez da lehendabiziko aldia, greba deialdi batean sindikatuekin batera eragile sozial desberdinek parte hartzen dutena. Eta ez da lehendabiziko aldia, Ikasle Abertzaleak eragile horien artean daudena.

Egungo egoerarekin larriturik eta etorkizunarekin kezkatutik, atzoko greba orokorraren eta abian jarri duten gutun sozial baten berri eman dute horietako hiru ikaslek.

**Azken bost urteotan sindikatu abertzaleek deituriko seigarren greba orokorra da atzokoa. Hain larria al da egoera?**

Bai, oso larria ere. Greba orokorra deitzeko arrazoiak egunero iza-

ten dira, bizi dugun egoera ikusita. Krisia hasi zenetik gobernuak hartutako neurriekin, gure hezkuntza sistema murrizten ari dira, baldintzak okertu dizkigute, matrikulen prezioak igotzen jarraitzen dute, eta horrekin guztia erekin, etorkizuneko gure egoera asko ari dira zailtzen. Horri erantzun bat eman behar zaio, eta greba erantzuteko modu bat da.

**Zeren ondorio da egun bizi dugun egoera ekonomikoa?**

Krisiak eraginda, gobernu desberdinek hartutako erabaki murriztaileen ondorio da egoera hau, krisiarena berarena baino. Erabaki hauek, botere politikoarengan egon ordez, botere ekonomikoaren esku egoten dira, eta haiek aplikatutako politika neoliberal-

len erruz iritsi gara egoera honetara.

**Zuen ustetan, noren esku legoke konponbidearen gakoak?**

Oso erraza da, jendearen esku. Jendeak presioa egingo balu, ez legoke estaturik gizartearen borondatearen aurka egingo lukeenik. Jendeak horren kontzientzia izan behar du, eta jakin konponbidea gure eskuetan dagoela.

**Greba honen deialdia egiterakoan, nolatan elkartu zarete eragile sozial desberdinak sindikatuekin batera?**

Langile munduaz gain bestelako esparruak ere erasotuko izaten ari direla ikusita, ikasleona esaterako, erabaki genuen honelako deialdiek bestelako babes bat behar zutela, osoagoa, eta horrega-

tik hartu genuen sindikatuekin batzeko erabakia. Egoerak okerrera egin ahala, orduan eta arrazoi gehiago dago indar desberdinak batu eta eremu desberdinetako eragileak deialdira gehitzeko.

**Zein da une honetan greba orokorra deitzeko arrazoia?**

Gehienbat, azkenaldian hartutako politikekin ados ez gaudela esatea. Baina greba honek izan du berezitasun bat, ez baita atzoko lan uztearekin bakarrik amaitzen. Segida bat eman nahi izan dio, mobilizatzen jarraitu nahi dugulako, eztabaidatzen eta alternatibak plazaratzen jarraitu nahi dugulako, eta horregatik, guk ere Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren eraikuntzan parte hartuko dugu.

### Zertan datza gutun horrek?

Herrietan, eskualdeetan, gehiengoarengana iritsi, eta eztabaida zabal bat jarri nahi dugu martxan oinarri batzuen gainean. Horrela, zein Euskal Herri mota nahi dugun, zein eredurik jarraitu nahi diogun edo zein eskubide dagoz-kigun erabakiko dugu. Modu honetara, elite ekonomikoek erabaki ordez, gure esku egongo da gure etorkizuna, izan ere, gutun horrek legitimitate handia edukiko du instituzioei gure nahiak exijitzeko. Eztabaidak garrantzia handia izango du, baina ez da horretan bukatuko; gutun hori tresna modura erabiliko dugu borroka soziala indartzeko eta gure aldarrikapenak egiteko. Horren atzetik ere bide luzea etorriko da, oraindik erabat zehaztu gabe badago ere. Zalantzarik gabe, atzoko grebak jarraipen indartsua izango du gutun sozialari esker.

**Zergatik behar du Euskal Herriak eredu propio bat?**

Argi ikusten dugulako zein ondorio ekartzen dituen eredu propioa ez izateak. Autogobernua badaukagula esaten digute, baina gero LOMCE bezalako erreforma baten aurrean babesik gabe gertatzen gara. Hezkuntza sistema goitik behera aldatuko digute, eta ez daukagu horri aurre egiteko tresnarik. Horregatik behar dugu eredu propio bat, guk erabaki behar dugulako gure etorkizuna, eta ez beste inork.

**Zer da itun horren bitartez lortu nahi duzuen?**

Eztabaida ahalik eta zabalena izanda, herritarren gehiengoak gutun hori bere sentitzea nahiko genuke. Era horretara, herritarrek hauteskundeak eredu dela sentitzen badute, askoz ere errazagoa izango da hori instituzioen aurrean defendatzea.

**Zein paper jokatuko duzue ikasleek gutun honen eraketan?**

Herritar moduan arituko gara, baina gure ikuspuntua ahalik eta zabalena ematen saiatuko gara. Azken batean, guk geure errealtatea bizi dugu bai eskolatan, bai unibertsitateetan, eta, oro har, ikasle bezala, eta hori islatzen saiatuko gara. Noski, gure ekarpenak ez du langileenarekin zeri-kusirik izango, eta horregatik, ikuspuntu berri batek diskurtsoa aberasteko balio lezake.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

# Genero indarkeria bizi duten emakumei babes emateko udal protokoloa sortu dute

Honez gain, bost mozioren inguruan eztabaidatu du Tolosako udalbatzak, azken osoko bilkuran

**Itzea Urkizu** Tolosa

Urtebeteko lanaren ondoren, eta udal ordezkari nahiz erakunde arteko koordinazioari esker, Tolosako Udalak, «genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumei arreta hobea emateko lehen udal protokoloa» abiarazi du, pasa den astearteko ohiko osoko bilkuran onespina eman eta gero.

Emakumeenganako indarkeria «emakumearen duintasunaren eta giza eskubideen aurka» doala nabarmendu dute udal ordezkariak: «Arazo publikoa da, eta guztioi eragiten digu».

Indarkeria sexistagatik egiten diren salaketak, gainera, gero eta jende gazteagoak eginak direla azaldu dute. Horrela, beraz, egoera hau bizi duten emakumei begirako arreta berezia da, protokoloaren oinarria.

Elkarlanean buruturiko lan honek, bi interbentzio mota zehazten ditu. Batetik, erasoak jasaten dituen emakumeak berak, larrialdi egoeran eta arriskuan dagoela onartzen dueneko kasuak leudeke; larrialdi irizpideak erabiliko dituzte horrelakoetan. Bestalde, erasoak jasaten dituen emakumeak bere egoera onartzen ez duenean, lehentasunezko irizpidea deiturikoa jarriko dute martxan.

Nabarmenezkoa da, udal ordenantza iaera duen protokolo honen erantzule politikoa, Tolosako alkatea bera izango dela. Horrela, udaleko alderdi politikoko guztiak bat egin dute auzi honetan, eta PSE-EE nahiz EAJ «oso pozik» azaldu dira protokoloarekin, udal



Aho batez onartu dute genero indarkeriaren udal protokoloa. I. URKIZU

goberna osatzen duten alderdie-tako kideekin batera.

Propotokoloaren sorreran parte hartu duten erakundeak, berri-rriz, honakoak izan dira: Osakidetza, Asuncionklinikak, Ertzaintza, Udaltzaingoa, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio saila, Bilgune Feminista eta erasotutako emakumeak.

Ibai Iriarte alkateak azaldu duenez, erakunde eta eragileen parte hartzea aldatuz joan da urte osoan, baina hasieratik mahai iraukorkor bat lanean aritu da: «Etorkizunean eragile berriei ireki nahi diegu mahaia; adibidez, hezkuntzari loturiko eragileei nahiz guraso elkartei».

## Diagnosi baten ondorioa

Ibai Iriarte alkateak azaldu duenez, protokoloa zehazteko diagnosi bat egin dute, urte osoan zehar: «Salaketa jarri dutenei nahiz jarri ez dutenei begiratu diegu, eta Tolosan genero indarkeria kasu asko daudela ikusi dugu. Erdiek, ordea, ez dute salaketarik jartzen, eta beraz, biktima ikusezina dira».

Besteak beste, protokoloaren helbururik behinena, emakume hauei guztiei babes eskaintzea, eta berenganako arreta hobetzea da. Bide honetan, Iriartek Bilgune Feministari esker bereziak eman dizkio: «Izan ere, askotan emakumeek lehenago jotzen dute eragileengana, esaterako,

Ertzaintzara baino; beldur gutxiago ematen die».

Bestelako jomugen artean, udalerrri txikiei zerbitzu hau eskaintzea ere zehaztu dute, eta azkenik, adierazpen publikoak egiteko moduz dihardu protokoloak: «Emakume bat jipoitzen edo erailtzen dutenean, zein adierazpen mota egin behar diren erabaki dugu».

## Bost mozio eztabaidarako

Mozioak nagusi izan ziren azken osoko bilkuran.

Batetik, Gesto por la paz erakundeak bere jarduna utzi duela eta, egindako lana errekonozitzea eskatuz, PSE-EEren mozioa onartu zen. EH Bilduk, berriz, Donostiako Onkologikoko langileen baldintzak hobetzea eskatu zuen, eta baita zentroa publiko egitea ere; onartu egin zen.

Bide beretik, LAB sindikatuak patronalei dei egin zen, 3. adineko langileen egoera desbloketzeko, mozio baten bidez.

Stop Kaleratzeak-eko kideek hipoteka kredituen interes tipezkin sortu diren «iruzurrak» salatzeko aurkezturiko mozioa ere onartu zuten.

Azkenik, LOMCE legea ere eztabaidagai izan zen, eta Bilduk eta Aralarrek aurkezturiko mozio alternatiboa onartu zuten. Legea «progresismoaren aldetik nazkagarria» dela nabarmendu zuen Ibai Iriartek.

# Erlezainen postuak ere izango dira biharko Lore eta Landare azokan

Tolosako San Frantzisko pasealekuan, artisauen postuak izango dira igande eguerdira bitarte

**I. Urkizu** Tolosa

Ekaineko lehen egunekin batera ospatzen da, urtero, Tolosako Lore eta Landare azoka. Aurten, ohiko postuez gain, erleen eta ez-tiarren inguruko informazioa eta produktuak eskuratzeko aukera izango dute azoka berezira bertarantzaren direnek.

Goizean goizetik, larunbatero Berdura plazan egoten diren lorezainek beren postuak atonduko dituzte. Horiez gain, ordea, Lore eta Landare azokara espreski etorritako mitegetako arduradunak ere Tolosan izango dira, Trianguloa plazan; lore eta landarez gain, lorezaintzarako tresneria ere izango da postuetan, gainera.

Biharko berrikuntza nagusia, ordea, erlezainen postuena izan-

go da; lore eta landareei estuki loturiko erleen lan egiteko modua ezagutu ahal izango da, batetik, eta era berean, askotariko ez-tia eta propoleoa salgai izango da, ekoizleen postuetan. Aipatzekoa da, erlezain guztiak Gipuzkoako Erlezain Elkarteak kideak direla.

## Artisauen esku trebeak

Naturak emandako produktuekin batera, San Frantzisko pasealekuan artisauen esku trebeekin egindako produktuak ere eskuragarri izango dira.

Gaurbertan, zabalduko dituzte postuak, 17:00etan, eta hainbat produktu erosteko aukera izango dute herritarrek: larrugintza eta beirazko produktuak, egurrezko jostailuak, xaboi naturalak, eta abar. Aipatzekoa da, Igor Obesok tailerra eskainiko duela beiraren inguruan.

Bihar, artisautza azoka 09:30etik 14:30era, eta 17:00etatik 20:30era izango da zabalik, eta igandean, azken egunean, 11:00etatik 14:30era bitarte ireki-ko dituzte postuak.

# Samaniego eta Uzturpe festa giroan izango dira

**I. Urkizu**

Ikasturte amaierarekin batera, ikastetxeak hasi dira beren festa egunak antolatzen. Biharko, Tolosako Samaniego ikastetxearen eta Ibarra Uzturpe ikastolaren eguna izango da.

Samaniegoko guraso eta ikasleek Uzturpe frontoian burutuko dituzte jarduerak, 12:00etatik aurrera, eta ikasleen emanaldiekin hasiko dute eguna. Era berean, haurrentzako puzgarri eta futbol-irraldoiak, ludoteka, globoflexia, nahiz aurpegia margotzeko tailerrak izango dira.

14:30ean bazkaldu eta gero, ume jolasekin jarraituko dute, eta kirol jokoak ere prestatu dituzte. Azkenik, Egan taldearen emanaldia eta txokolate jatea izango dira.

## Ibarra ere jaia

Ibarra Uzturpe ikastolan ere, ikasleen jaialdiak irekiko du egitaraua, perkusioa, dantza, antzerkia zein bertsoak eskainiz.

Bazkalondoren, berriz, toka, puzgarriak, dantzaldia eta hockey erakustaldia izango dira. Antolatzaileek ikasle eta guraso ohiak ere gonbidatu dituzte.

## → Laburrak

### Gorputz eguneko meza eta prozesioa, igandean

**TOLOSA** > Etzi ospatuko dute Gorputz eguna, eta Tolosan meza nagusia izango da, 12:00etan. Ondoren, aurten lehen jauntzea egin duten Tolosako neska-mutilekin, prozesioa izango da Alde Zaharrean barrena.

### Sanjoanetakoa kuadrilla eguneko txartelak salgai

**TOLOSA** > San Joan jaietan, ekainaren 22an ospatuko dute aurten kuadrilla eguna. Euskal Herria plazako bazkarirako txartelak gaur eskuratu ahal izango dira, 19:00etatik 21:00etara, Orbela tabernan. Bihar ere, 11:00etatik 13:00era eskuragarri izango dira, eta baita datorren asteburuan ere: ekainaren 7an 19:00etatik 21:00etara bitarte, eta ekainaren 8an 11:00etatik 13:00era.

### Bihotz-biriken suspertze postua jarriko du DYAK

**TOLOSA** > DYAK bigarren urtez ospatuko du, bihar, Bihotz-biriken suspertze eguna, *Zure eskuek bizitza bat salba dezake* lelopean. Sentsibilizazio kanpaina honen barruan, suspertzearen oinarriko pausoak irakasteko postuak jarriko dituzte Gipuzkoako hainbat herritan, herritarrek ikas ditza-ten, doan. Tolosan, 17:00etatik 20:00etara izango dira, bihar, Trianguloan plazan.

### Software libre ikastaroa, merkatarientzako

**TOLOSA** > Tolosako KZ Gunean, merkatariei begirako software libreaki buruzko ikastaroa izango da, ekainaren 4an, Sean eta 6an, eta 11n, 12an, eta 13an. 14:00etatik 16:00etara bitarte ariko dira, eta informazioa eskura daiteke [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) atarian. Aipatzekoa da, Ibarra KZ Gunean ere ikastaro bera eskainiko dutela, ekainaren 18an hasita.

### Lanetik ikastaroa, enpresen garapenerako

**TOLOSA** > Lehiberrik eta Baketik-ek Lanetik mintegia antolatu dute. Enpresetako giza taldeei eta etikari garrantzia emango dio, ekainaren 6an hasiko den ikastaroak. Lau saio izango dira, eta izena emateko hainbat modu daude, saio guztietara etorri, eta banaka aukeratzu. Izena emateko, 943654501 eta [lehiberri@lehiberri.net](mailto:lehiberri@lehiberri.net) balia daitezke, eta informazio osoa [www.lehiberri.net](http://www.lehiberri.net)-en dago.

→ **Laburrak****Ramon Saizarbitoriak jaso du III Akademiaren saria**

**KULTURA** ▶ Ramon Saizarbitoriak eskuratu du 2012ko III Akademiaren Saria *Martutene* eleberrirengatik. III Akademiako irakurleek hasieratik hala erabaki zuten, eta asteazkenean ospatu zen saria emateko ekitaldia Andoaingo Bastero kulturgunean: Ana Carrere Andoaingo alkateak eman zion larruz enkoaderaturiko obra saritua, eta Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen eskutik jaso zuen diploma.

**Ohiko osoko bilkura egingo du Leitzako Udalak, gaur**

**LEITZA** ▶ Leitzako Udalak ohiko osoko bilkura egingo du, gaur, 19:00etan hasita. Hamabi puntuko gai ordena izango dute. Besteak beste, Hirigintza planaren aldaketa puntuala, Aritzeko biderei dagokion katastro aldaketa eta 2013ko aurrekontuaren 2. eta 3. aldaketak onartzea izango da. Bi mozio ere izango dituzte: AHTko dirutza udalerrian eta herritarren beharretara bideratzeko eskaera eta bestetik, haur eskolaren finantziazioa.

**Ziotza pilota eskolan izen ematea irekita dago**

**ZIZURKIL** ▶ Zizurkilgo Ziotza Pilota eskolak matrikulazio epea ireki du. Egun hauetan, Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotza ikastetxeetan esku orriak banatu ditu. Sei urteko gorako neska-mutilek izena emateko aukera izango dute. Honez gain, orde, astelehene-tik ostegunera, 17:00etatik 18:00etara, Intxaur pilotalekuan egongo dira edo izena eman nahi dutenek 609 431 265 telefono zenbakira deitze-ko aukera izango dute. Ekainak 14 izango da izena emateko azken eguna.

# Finalean sartzeko Oinatz Bengoetxeak Juan Martinez Irujo gainditu beharko du

Herriartekoan Alegia, Bidegoian, Amezketak Zizurkil eta Tolosa ariko dira; Ogi Berriko kanporaketak, bihar

**Eneritz Maiz**

Buruz Buruko Pilota Txapelketa finalerdiak erabakita daude, eta etzi Oinatz Bengoetxea eta Juan Martinez Irujoen txanda izango da. Donostiako Atono III. pilotalekuan neurtuko dituzte indarrak, eta 22ra iristea lortzen duenak finalera txartela eskuratuko du.

Leitzarrak, 105,5 eta 105,8 gramoko pilotak aukeratu zituen asteazkenean egindako material aukeraketan, eta iberokoak aldiz, 103,5 eta 104,2koak. Partidak irabazleak, Olaizola II.a eta Urruti-koetxearen partidaren zain egon beharko du aukaria zein izango duen jakiteko.

Maila nagusiko txapelketaz gain, bada pilota txapelketarik eta Gipuzkoako Herriarteko Pilo-



Telletxea, Imaz eta Peñak Ogi Berri Txapelketan jokatu dute, bihar... I.G.L.

ta Txapelketan, eskualdeko pilotariak buru-belarri ariko dira. Alde batetik, gaur, Alegia eta Bidegoianek, azken hauen pilotalekuan jokatu dituzte partidak 19:30ean hasita, eta garai berean, Tolosa eta Berrobiren artekoak izango dira, Berrobin. Amezketak aldiz Hernanin jokatu beharko du igandean, eta 10:45ean hasiko dituzte partidak. Beste multzoan, gaur, Zizurkilek Bergarari egin beharko dio aurre etxetik kanpo, 19:30ean hasita.

Zesta putan, berriz, Tolosak Zumaiain jokatu beharko du, gaur, 18:30ean hasita.

**I. Ogi Berri Txapelketa**

Tolosako Beotibar pilotalekuak Migel Soroaren Oroimenezko I. Ogi Berri Txapelketaren kanporaketa hartuko du, bihar. Hiru partida izango dira jokoen, eta 16:30ean emango zaio hasiera. Lehen partida, kadeteen mailakoa izango da eta Peña-Martija bikoteak Okiñena-Martinez bikoaren aurka jokatu beharko du. Jubenil mailako partida, Agirre-Telletea eta Ansotegi-Lasa bikoteen artean jokatu da, eta etorkizuneko pilotarien artean, Dario-Sarasa eta Larunbe-X. Imaz bikotearen artekoak izango da lehia.

## Ibarratik Misio Taldeak Pintxo Pote Solidarioa egingo du igandean

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarratik Misio Taldeak Pintxo Pote Solidarioa antolatu du datorren igandera ekainaren 2rako. Urtean bitan egin ohi du ekimen hau, eta helburua bertan bildutako dirua laguntzen dituen proiektuetara bideratzea da.

10:30etik 14:00ak bitarte egingo dute pintxo potea, Ibarako plazan. Jateko eta edateko aukera izateaz gain, artisautza produktuen salmenta ere izango da, eta munduko hainbat txokotan dituzten proiektuen informazioa emango dute. Halaber, haurrentzako ekimenak ere izango dira. Bestalde, taldeak igandeko ekimena aurrera eramateko laguntza eskatu du: «baten bat antolaketak eta muntaia lanetan laguntzera animatzen bada asko eskertuko genuke».

## Alegiako Udalak atez atekoarekin hasteko kuboak banatuko ditu, gaurtik hasita

**E. Maiz** Alegia

Alegiako Udalak, atez atekoarekin hasteko kuboak banatuko ditu. Prozesuan herritarren 45 iradokizun jaso dituzte eta gehienak kontuan hartu ditu. Orain, kuboak banatzen hasiko da, Frankonin.

Gaur, 16:00etatik 20:00etara; bihar, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; igandean, aldiz, 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Egun hauetan ezin dutenek, udaletxetik pasa beharko dute.

# Plazak betetzen jarraitzeko eguna

**E. Maiz**↓ **Azken ostirala**

Hileko azken ostirala izanik, gaur, Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko eguna izango da. Herrira-k deituta elkarretaratzeak egingo dira.

Maiatzaren 18ko *Plazak bete* ekimena egin berritan iritsi da azken ostirala, eta orduan egin moduan, gaur ere, herritarrei plazak betetzeko deia egin diete elkarretaratzean parte hartuz.

**GAUR**

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30etan.
- **Aitzo.** 20:00etan.
- **Amezketak.** 19:30etan.
- **Anoeta.** 19:30etan.
- **Asteasu.** 19:00etan.
- **Berrobi.** 19:30etan.
- **Berastegi.** 19:30etan, herriko plazan.
- **Bidegoian.** 19:00etan Bida-

niako pilotalekuaren aurrean egingo dute.

- **Ibarra.** 19:30etan.
- **Irura.** 19:30etan, plazan.
- **Gaztelu.** 19:30etan, plazan
- **Ikaztegieta.** 20:30etan.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Txarama.** 20:15etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30etan.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

◉ **Hilberriak eta urteurrenak**

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



-Eskertza eta meza-

## JOSE ANTONIO IZAGIRRE IRASTORZA

(Bernarda Gorostegiren alarguna)  
-Goian bego-

Bere familiak asko eskertzen dizute samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztiok, eta gonbidatzen zaituzte bere animaren alde egingo den mezara bihar LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN SANTA MARIA parroki elizan.

TOLOSA,  
maiatzaren 31n



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

**BIHAR, EKAINAK 1**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

**ETZI, EKAINAK 2**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-

koa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.  
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU, EKAINAK 3**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

**DISEINUA. 3D ANIMAZIOA**  
Aurrematrikula malatzak 27 / ekainak 7

.01 AURREMARIKETA DIGITALAN TEKNIKARA 200 HALL  
.02 ANITZALPERN BIDEA ETA PRODUZIOA 20 HALL  
.03 3D ANIMAZIOA, ANIMA ETA IRUDINE INTERAKTIBOAK 20 HALL

**200**

**ceinpro**

**TITULAZIO OFIZIALAK**

**Irudia Berrobi**



**EUSKAL DIASPORARI BURUZ SOLASEAN**

Cesar Arrondo Argentinako La Plata unibertsitateko euskal jatorridun irakasleak euskal diasporaz hitzaldia eman zuen astelehenean Berrobin. Euskal Herriko historiari errepasoa eman ondo-

ren, Euskal Herritik Argentinara joandakoen zergatiak aztertu zituen. Hala, euskal diasporak munduan duen garrantzia azpimarratu zuen sei milioi euskaldun baitaude munduan. HITZA

**Agenda**

**GAUR**

**DEIALDIAK**

■ **Alegia.** Sutarri dantza taldeak, 22:00etan, ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du. Sarrera doan izango da, eta kultur etxean egingo dute saioa.  
■ **Alegia.** Hilario Berri tabernan, 22:30ean, Pettiren kontzertua izango da.  
■ **Ibarra.** Abesbatza berriak 20:00etan kontzertua eskainiko du, udaletxeko aretoan.  
■ **Tolosa.** Orbela tabernan Belarmiñak taldearen kontzertua izango da, 22:30etik aurrera.

**JAIAK**

■ **Anoeta.** Herriko jaietan, umeen eguna izango da. 10:30etik hasita umeen parkea, apar festa edota Patxin eta Potxin pailazoak izango dira. 23:30ean, D-

Pintxos taldearen kontzertua izango da, eta ondoren Ingo al deu? taldea.

**BIHAR, EKAINAK 1**

**DEIALDIAK**

■ **Ibarra.** Sendi Ekintza tabernan, DBH36 musika taldearen emanaldia, 19:00etan.  
■ **Tolosa.** Alegiako Txintxarri abesbatzak Tolosako Santa klara komentuan abestuko du, 19:00etan izango den mezan.  
■ **Altzo.** Marrazkontaketa, Belardoren ibilerak izango da, 17:00etan, udaletxeko lokalean. Mattin marrazkilariaren eskutik, eta euskaraz izango da saioa.  
**JAIAK**  
■ **Anoeta.** Herriko jaietan, gazteen eguna izango da, eta 11:00etan umeen jolasekin

emango zaio hasiera egunari. 18:00etan gazteen kalejira era 19:00etan sagardo dastaketa izango da. Herri afariaren ostean, gazteen dantza ta DJ Bull.  
**ZINEMA**  
■ **Tolosa.** Leidor zine aretoan, 22:30ean, *Stokereta Saving the human race* film laburra izango da.

**ETZI, EKAINAK 2**

**DEIALDIAK**

■ **Bedaio.** VII. Mendi eta VI. BTT Martxa izango dira, Bedaion. 35 kilometroko ibilbidea egin behar dute. Era berean, eta Kilometroak 2013rekin bat eginez, Ahora 13 bihotzetik Artubira ekimena egingo da. Artubira igoko dira 09:00etan Abaetxeko lorategitik abiatuta.

**JAIAK**

■ **Anoeta.** Herriko jaietan azken egunean 08:00etan sokamuturra egingo dute, plazan. Gorritiren festibala eta kalejira izango dira, besteak beste, goizean. 17:30ean, herri kirolak izango dira, eta 19:00etan, Kupela taldearen erromeria izango da. 00:00etan kukuaren igoerarekin amaiera emango zaie jaiak.

**ZINEMA**

■ **Tolosa.** Leidor zine aretoan, 19:30ean, *Stokereta* 22:00etan, *Stokereta Saving the human race* film laburra ikusteko aukera izango da.

**Mauka** berria

**GAURKO ESKAINTZA**

**Menu berezia ostiralero!**

Prezioa **29€**

SUTARGI JATETXEA [sutargi@sutargi.com](mailto:sutargi@sutargi.com)

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu)

**berria** taldea